

Kulturgintza birpentsatzen Hurbilketa bat aldaketa sozialei eta bere eraginei kulturgintzan



EUSKAL KULTURGINTZAREN TRANSMISIOA
HIRUGARREN MODULUARI SARRERA

2009-03-25

GAIA



Euskal kulturgintza aztergai hartzen badugu, aldaketa-garaia bizi dugu.

Irakurketa unibertsal eta lekutu batek egiaztatzen dute sasoi historiko berriaren hipotesia.

Egungo ingurumari soziokulturala eta ortzemuga berri baterako erronkak birpentsatzeko, beraz, komeni da aldaketaren metafora ere aztertzea, gure gaia ulertzeko ertzetako bat den heinean.

Saio honetan lehen eginkizunera mugatuko gara: ingurumari soziokulturala aztertuko dugu, analisi eta desafioak hirugarren moduluan landuko direlarik.

Helburuak



Saioaren helburu orokorra da gizarte-aldaketan gaia aztertzea, arreta-gunea aldaketa-garaian kulturagintza ulertzeko proposamenei ipiniz.

Helburu zehatzagoa, berriz, hirugarren modulurako lehen kezka-gune batzuk identifikatzea da, hizlarien gaiak kokatzeko eta beren aurkezpenak modu kritikoan entzuteko.

GIDOIA



1. Aldaketa garaia eta garaiaren aldaketa.
2. Sasoi historikoak eta kultura:
Kulturgintzaren logikak;
Euskal kulturgintza berria;
Formula magiko bat.
3. Solasaldirako ideiak.

(1) Aldaketa garaia eta garaiaren aldaketa



1. Aldaketa dela eta;
2. Modernitatea: premisak eta figura humanoa;
3. Instituzioen metamorfosia;
4. Zenbait irakurketa eta balorazio.

Aldaketa: esanahia zehazten



Gizarte tradizionaletan bezala (erlijio-politika), proiektu modernoak ere gu abstraktu sendo batean oinarritu da. Gizarte modernoak, gizarte poli-teista bat da: ez da kontakizun handiaren amaiera, baizik eta kontakizun handien ugaritzea.

Modernitatea proiektu, bilbadura sinboliko, irudikari kolektibo solidoen garaia bada, horren akabera da bizi duguna.

Aldaketaren tesia: “narratiba berrien faltan gaude, ‘bizitzaren inguruko galderak’ aldatu diren honetan”.

1. Izan ere, gizarte tradizional zein modernoetan ezagunak genituen bizitza publikoari buruzko galderak eta horiei buruzko erantzunak ere bai.
2. Baina orain galderak aldatu egin dizkigute edota aldaketa sozialek erantzunak birformulatzera behartzen gaituzte.

Modernitatea, garai solido bat



1. Modernitatea, proiektu diseinatua. Modernitate-proiektu orok ezaugarri komun batzuk izan ditu (gatazkak egon dira, ugariak eta jite desberdinekoak, baina guztiek antzekotasunak izan dituzte): adostasuna egon da aurrerakuntzan (*status* aldaketa, higikortasun soziala, askapen kolektiboa); historiak teleologia bat du eta aukera politiko orok barneratua du etorkizun bat; estatu-nazioak existentzia, identitatea eta zentzua eman(-go) dizkigu, eta horrek guztiak bultzatuta proiektu-diseinuak gizakiaren beraren eskutan zekusan paradisua.
2. Gizaki modernoa. Modernitateak figura humano zehatz bat irudikatu eta gorpuztu izan du (aszetismoaren eta jabego materialerako afanaren arteko tentsioa une orokoa izan arren). Gizaki modernoaren ezaugarriak izan dira: lana bokazio bezala aukatzea eta esker-ordaina geroratzuz aurrezpena goratzea. Diziplinaren espirituak eta obligazio moralak austeritatean, errukian, zuhurtzian eta lanarekiko debozioan oinarrituriko jokamolde erlijiosoak dakar. Lanaren etikarekin batera, modernitatearen berezitasunak dira autoritateari leialtasuna eta sakrifizioaren kultura ere.

Modernitate solidoa



Proiektu diseinaturia

1. Historiaren filosofia baikorra, aurrerabidearen profezia: etorkizun bat, destinoa eta beraz esperantza, segurtasuna, konfiantza, identitate kolektibo bat.
2. Historiak teleologia bat du: norabide bat, proiektuak barneratua du(-te) etorkizuna.
3. Estatu-nazioa: herria eta bere existentzia, muga geografikoak eta muga moralak (nor naiz).
4. Proiektu diseinatu bat: naturaz eta jendarteaz gaindi, dotrina bat eta bide-mapa bat.

Pertsonalitate sendoa

1. Jokamolde erlijiosoa, dotrinarioria.
2. Lanaren etika.
3. Autoritateari leialtasuna.
4. Sakrifizioaren kultura.
5. Orainaldia postergatu eta etorkizuna irudikatu (zain egonaz, bizi).

Dispositibo instituzionalen metamorfosia



Instituzioak (*i.e.*, erakunde politikoak, intelektualak eta beren irudikariak) portaera kolektiboa arautzen duten dispositiboak dira.

1. Joko-arauak dira, errealitatea definitzeko, ekintza kolektiboak arautzeko edota ordena soziala sakralizatu eta legitimatzeko.
2. Horietatik eratortzen dira bizitza-zentzua, konfiantza eta segurtasuna, alegia, etorkizuna irudikatzen duen modu bat, kidetasun-sentimendua eta identitate kolektiboa.
3. Baina arauak aldatzen direnean, ordena soziala auzitan ipintzen da, eta beraz legitimazio-krisia, konfiantza-eza eta ziurgabetasuna ernaltzen dira.
4. XXI. mendearen atarian ordena instituzionalaren metamorfosi global bat bizi dugu.

Lehen irakurketa: indibiduo likidoa



Instituzio desberdinak ari dira eraldaketa bizitzen, hala nola: familia, merkatua (instituzio ekonomikoa), eremu sinboliko-kulturala, edota Estatua (instituzio politikoa).

Bigarren Mundu Gerraz geroko mendebaldeko gizartearen erakundetze-eredua krisian dago eta honek paradigma-aldaketa bat dakar. [...] Etorkizun kolektiboa mehatxatzen duten ziurgabetasunak eraginez ...

... Arlo ekonomikoan: globalizazioa (des-lokalizazioa, -kapitalizazioa); arriskuaren gizartea (ingurumen-krisia); migrazio-fluxuen areagotzea; kultura-aniztasuna eta, beraz, kohesio sozialaren oinarri moralen auzia; ikusmin sozioekonomikoen gezurtatzea edota etetea (statusen betikotzea).

... Arlo politikoan: Estatuaren ahultzea (pribatizazioa), audientzien demokrazia, kultura zibikoaren ahultzea, eremu publikoaren esanahi-iturriak merkatutik datoz.

... Arlo sinboliko-kulturalean: bizitza-estrategia egokitzaileak, pragmatismoa, aro post-heroikoa eta erreferentzien galtzearekin hedonismoa, aldi-bateko esperientziak eta bere kontzientzia nagusitu dira.

Kulturgintzari bagagozkio, ziurgabetasun hori testuinguru zehatz batean ernaltzen da: kontsumoaren funtzio identitario-sinbolikoa eta “erosi, erabili, bota” merkatu-logika (kontsum-ismoa) elikatu egiten dira, auto-errealizazioaren kultura nagusituz. Ardatz berria indibiduotasunaren eta erakargarritasunaren hiztegia da.

Indibiduo likidoa



Autonomia: baldintzak (zenbait ikasgai)	Segurtasun ekonomikoa Autonomia kulturala Elite demokratikoa
Osagai berriak	Autonomiagabezia (Prekarietatearen kultura) Auto-mugaketaren gabezia (alienazio kontsumista)
Auto-mugaketa: arazoak	Merkatu-kultura, orainaldia, aldibatekotasuna Mugaren zentzua eta kontzientzia falta, mugagabetasuna
Bere zenbait inplikazio	Estrategia familiarraren ahultzea Hezkuntza formalaren krisia Analfabetismo demokratikoa Zoriontasun paradoxikoa Bizitza kontsumatuak Pertsonalitate hedonista Kultura terapeutikoa Gizaki zuhurra (<i>auto-dependiente</i>)

Bigarren irakurketa:

Askatasunaren haurrak, indibidualizazioa



Instituzio beregainek leialtasuna eragin izan dute, horrek etorkizunari begira segurtasuna eta konfiantza ematen dizkigu, baina ordainetan subjektu historikoen (nazioa, klasea) errealitate zehatzak (identitateak, bizipenak) erreprimitu dituzte. Zentzu horretan, des-tradizionalizazioa askatasun berrien ernamuina izaki, indibidualizazioa autonomia kulturalaren adierazle nagusia da.

“Bizitza garaikidean, aldaketa sozialak eta axiologikoak eman dira, zehazki, kohesio soziala askatasun politikoaren eta hiritartasunaren bidez ematen da”.

“Indibiduoaren autodeterminazio hazkorrak ez dakar bizitza-eredu berekoia eta kideek elkarrenganako obligazioak aldaratzea, baizik eta moral berria”.

“Modernitateak finkatzen ditu subjektu indibidualaren autonomiarako oinarriak, baina bigarren modernitatearekin gorpuztu eta sendotzen da”: heziketa-sistemaren eraldaketarekin, familia-balioen aldaketarekin, eskubide pertsonalen hedapenarekin, aukera kulturalen ugaltzearekin, e.a.

Honek ahalbidetzen du “gizakiak euren burua indibiduo bezala irudikatzea eta, aldi berean, euren autonomia gorpuzteko ahalmen efektiboa izatea” (“subjektu erreflexiboa”).

“Gizarte post-tradizionaletan lotura eta aliantza irekiak sustatu behar dira, norbanakoaren egoera indibidual berrietatik abiatuta”; hitzarmenaren kultura da bidea eta adostasuna berriz helburua.

Askatasunaren haurrak, indibidualizazioa



Testuingurua	Alderdi-sistema, demokrazia Hazkunde ekonomikoa Ongizate soziala
Ahalmen efektiboa	Arlo sozialean: independentzia materiala Arlo kulturean: autonomia indibiduala
Bilbadura sinbolikoa	Aldaketak 1. Kognitiboak Hezkuntza-sistema orokorra Informazio-, komunikazio-teknologiak 2. Afektiboak Familia-balioen erabakitzea Eskubide pertsonalen hedapena 3. Kulturalak Bizitza asoziatiboa, askatasun politikoa Ekintza kolektibo berriak
Subjektu berria	“Subjektu erreflexiboa”, “Herritar indibiduala”

(2) Kulturgintza



1. Kulturgintzaren logikak;
2. Euskal kulturgintza: puntualizazioak;
3. Formula magikoaren bila.

Kulturgintzaren logikak



Logika tradizionala: naturaren kontrola xede du eta biziari lotua dago;

Logika modernoa: xedea gizarte bat lantzea da, Nazio-Estatuak burutua.

Pertsona hezkuntzarekin kultibatzen da, kanon unibertsalen bidez.

Frontera kulturalak (nazionalak, moralak) ezartzen dira eta horrek identitatea (kidetasuna) eta bereizketa (desberdintasuna) ematen ditu.

Logika berantiarra: kontsumoaren kulturen oinarritzen da (“erosi, erabili, bota” logika).

Hautamen “librea” (ziklo laburrekoa) eta bizi-proiektu pertsonala ahalbidetzen ditu.

Eredu normatibo gogorra eta pertsonalitate bat finkatu ordez, merkaturan identitate sekular ugari dago eta nor-banakoari dagokio horiek hautatu eta balio-hierarkia zehaztea.

* (Merkatua, hautua eta hautatzeko eskubidea, identitate aniztasuna, nor-banakoa, *pertsonismoa*, gozamena eta plazera ...)

Kultura	Zerena	Nork	Zertarako	Nola
Mundu tradizionalean: kultura “osotasuna”, kosmobisioa	-Natura. - Jendea	Eguneroko bizimoduan, Jendeak.	Izandakoari eusteko (gogoetarik ez).	Bizimodu arrunta egituratzen duten instituzioak (ekandurak, azturak) bizaraziz.
Modernian: - Nazio-kultura partikularra. - Zibilizazioaren kultura unibertsala.	Gizartea: - Nazioa. - Gizabanakoa.	-Estatu- aparatuek. - Gizarte-klaseek (alderdi politikoek).	-Erreformatu, aurreratzeko. - Gizarte- aldakuntzarako. - <i>Gizarte osoa</i> kontrolatzeko.	Erakundeen egitarauak: eskola, lege- kodeak ...
Modernia ostean: - Ideo-kulturak. - Logika asko. - Hibridazioa, mestizaia.	-Kontsumoa (merkatua). -Harremanak, nortasunak.	-Mundu- korporazioek. - Gizarte- mugimenduek. - Erakundeek.	-Etekinak, “mundu erosleria” lortzeko. - Nortasunaren gestio autonomoa lortzeko ...	-Merkatuaren logika liberalaz, globalizazioa. - Gizarte- eragintzaz.

Euskal kulturgintza



Modernitateak unibertso sinboliko zurruneekin eta kulturaren bitartez herritartasuna bermatu eta sustatu du; patua izateari utzi eta destino kolektibo bat unibertso sinboliko instituzional batekin gauzatu, sustatu eta gorpuztu da (Estatu-nazioa, azpiegiturak, irudikariak).

Euskal kultura modernoa berezia da:

1. kapital kulturala eta bereizte-logika baterako “Politika” faltan egon gara;
2. kulturgintza gizarte auto-eratuak (kulturgileek, gizarte mugimenduek) eta berrikitan autogobernu-politikak ahalbidetu dute;
3. instituzionalizazio autonomikoarekin:
 1. elite politiko eta kulturala bereizi da, eta elkarri lehia bezala aritu izanaren sentsazioa dago [abertzaletasun politikoaren hegemonia-talka ere tarteko dela];
 2. talkan egon dira “botere-politika”, “eragin-politika” eta “identitate-politika”, baina gainera bisioa bera ere bada talkan egon dena: ez dago bisio euskal/nazional bat;
 3. jendearen pertzepzioa da euskal kultura egonkortu dela eta erresistentzia-identitatearen beharrik ez dagoela.

Kultura-politiken premisak gaur egunean :

1. euskal kultura eremu berrietan mugitzen da eta erritualak merkatuak (ere) gauzatzen ditu;
2. aukeratzearen logikak “erostearen kultura” eta “lotura ahulak” behar ditu (“euskara jolasgarria”);
3. euskal kulturaren ahulezia da ez duela erakargarritasunik eta proiektu-identitate gisara merkatu-logika jarraitu beharra dago.

Excursus: euskal kulturgintza, diskurtso hurbilak (I)



«Batak (euskal kultura etnikoa) tradiziozko alderdia azpimarratzera garamatza. Besteak gizarteko gatazkei begiratzea. Hemendik aurrerako eginbeharra, hartara, honelakoa ikusi dugu: egungo Euskal Herrian herri kulturaz mintzatzea ahalbidetuko digun **eredu bat** osatzen hastea, aldi-berean tradiziotik datorrenera mugatu gabe, eta euskaltasunarekikoa gizarteko borroken itzalpean ezkutuan gera dadin ekidinez» .

«Hura, euskal kultura, **osotasunezko alternatiba** gisa kontrajartzen zaio kultura hegemonikoari, nazio kultura espainolaren ordeztuz euskal kultura aldarrikatzen delarik. Kultur aldarrikapen hau, hizkuntzaren bitartez osotasun bat osa dezakeen neurrian, proiektu politiko bati loturik agertzen da, azken funtsean. Euskal kultura nazio kultura gisa eraikitzea baita aldarrikatzen dena, eta horrek Euskal Herriak egun duen estatus juridikoa eraldatzea esan gura du».

Excursus: euskal kulturgintza, diskurtso hurbilak (II)



«Gogora dezagun jadanik Campionek ohartarazi zuela euskara ez dela hiltzen ari, erailtzen ari direla. Eta ohar horren bitartez, hizkuntzen bilakaerak, beren ezaugarri propioekin baino, **gizartearen gorabeherekin** zerikusi handiagoa dutela azpimarratzen zuen. Baina Txillardegik zehatzagoa da auzi honetan, Campion eta geroagoko Krutwig baino. Zenbait hizkuntzalariren lanetan oinarrituz, Txillardegik **botere-gune** politikoek menperaturiko herrien hizkuntzak ordezkatzeko izan duten joera erakusten digu».

«Hizkuntzaren eta boterearen arteko lotura hau, gainera, gero eta handiagoa da Txillardegiren iritziz. Lehenago bazitekeen herri batek —hiztun komunitate batek— mendeetan zehar bizirautea, erresuma propiorik gabe. Historiak halaxe erakusten digu, euskal herriaren kasuan bertan ere. Gaur egun, ordea, hori ezin da, besteak beste botere-gune garaikideek duten ahalmen handia dela medio. Egungo mundu honetan, hizkuntzaren biziraupenak ezinbestekoa du "erresuma". Botererik gabe, ez dago **hizkuntza komunitateak** irauterik. Erresumarik gabeko herria desagertzera kondenaturik dagoela esango du Txillardegik, auzi honetan Campionengandik erabat bereiztuz».

Excursus: euskal kulturgintza, diskurtso hurbilak (III)



«Aztertu ditugun iturrien artean, Champion eta Txillardegi dira herriak bereizteko maila gorenean hizkuntza jartzen dutenak; Sabino Aranak bere arraza kontzeptuan bilatzen du bereizgarritasuna; Federiko Krutwigek, etnialariek —kontzeptu honetan hizkuntza lehen mailako osagai delarik—; Barandiaranek eta beste antropologo batzuek, kulturaren historian; ETaren inguruko zenbait saiotan, klasean aurkitu nahi da izan da euskal herria mugatzen duen irizpide nagusia ("Pueblo Trabajador Vasco" delako kontzeptuaren bitartez). **Bereizgarritasunaren bila**, beraz, bat eginez aurkitzen ditugu ikuspuntu guztiok» .

Ikaskideak mintzo (I)



Kulturgintza nartzisistaren zantzuak. Kulturgintza mundu honetan ez al dago interes pribatu gehiegi, zerbitzu emate asmo gutxiegi eta nartzisismo gehiegi? Konponbiderako asmo gutxi. Elkarlanerako baldintza eskasak, kultura zer den adostu beharra, diskriminazio positiboak non erabiltzeko politika adostasunik ez e.a. Gai honek gaitz endemiko gehiegitxo ote dauzkan iruditzen zait.

Gidaritza intelektuala dela eta. Dramatikoa bihurtzen ari da instituzioek elite izatearen monopolioa bereganatu nahi hori. Kulturgileen elkar hartze oinarrizko batzuen beharra susmatzen dut. Gidaritza intelektuala argiago bisualizatu nahi nuke nik. Uste dut badagoela maila goreneko gogoetarik (gradu-ondoko ikastaro honetako zenbait hizlari kasu) eta hortik etorri beharko du eztabaida eta aurrera begirako zidorra.

Bisio falta eta zentzu-gosea. Bisio falta dago, bai. Ez dut uste irudikari kolektiboak formulatzeko gaitasunik dagoenik eremu publikoan. Gizarteak badu, ordea, gaitasun hori. Norbanakook erreferentzia aniztasun horri filtroak ezartzen dizkiogu, izan ere, guztiok baitugu oinarrizko premisen premia. Hori nola jarri amankomunean, nola norbanakotik komunitaterako trasbasea egin, nola bildu eta bat egin aleak, nola mugiaraziko gaituen amets kolektibo bat artikulatu?

Ikaskideak mintzo (II)



Eremu publiko eta adostu bat. Tribuaren errealitate eta amets kolektiboek isla behar dute nonbait. Intelligentsiaren funtzioa bada hori (horrela uler daiteke behintzat) amets kolektiboen bisio kritikoa eman, irakurketa egin...tribuari eztabaidarako oinarriak eskaini. "Euskal" eremu, izate, unibertsoan... arlo instituzionalak (politikoak) duen garrantzia kontutan hartuta, asmatu beharko litzateke intelektualitatearen ikuspegi kritikoa eta plano politikoaren arteko uztarketa oinarritzko bat ematen. Definizioz bateraezinak ematen badute ere kontradikzioak kontradikzio, ezintasunak ezintasun...aurrerabiderako ekarpen politikoek euskal intelligentsiaren (nonbait baldin bada) ekarpenetik behar dute.

Erresistentziaren lur-azal politikoa. Bada gurean botere instituzionalean sustrairik bota ez duen lur-azal politikorik, baina aldi berean gizarte eraldaketarako oso eraginkorra izan daitekeena. Horretaz ari naiz, batez ere, (ez soilik) eta uste dut eremu horrek etengabe behar duela euskal intelligentsiaren iturritik edan. Hortxe duela, gainera, oinarria. Erresistentzian ere bada lur-azal politikorik eta zelai horretan edukien eguneratzeak, eztabaidek, ideia kritikoen ... inon baino presentego egon beharko lukete. Horren premia susmatzen dut. Ez dakit ... behar bada gaiaren abiapuntutik urrutiegi joan naiz.

Irakurketa ziklikoa. Intelligentsiak ideiak sortuko ditu bisio kritiko batetatik eta ideia horiek zabaltzeko bideak zeintzuk diren aztertu ere. [...] Guztiekin hobera egin nahiko dute, gizarteak aldatu eta hasieran, boterearentzat arazoa izango dira, deserosotasuna sortuko diote botereari. Ondoren, politikatik gauzatuko dira horietako proiektu batzuk eta orduan politikak edo botereak intelligentsiaren zati bat irentsiko du, intelligentsia hori erakundetu egingo da eta boterean daudela, ametsak galdutzat emango dituzte, edo ez; akaso ahaztu egingo dituzte, ez dakit. [...] Hori guztia testuinguru batean eman da eta koordenada historiko batzuetan, baina ez da bakarrik hemen gertatu. Beharbada orain ziklo berri baten hasieran egon gitezke, beste testuinguru baten aurrean, ideia berriak sortu beharrean, etorkizunean politikagintzatik gauzatu ahal izango direnak.

Diagnostiko bat



Egoera: ez dugu gizarte artifizialik (pauta moderno sendo eta arau-emailerik, berme politiko bezala), baina gainera merkatuaren artifizioak (logika, kultura) nagusitzen ari dira.

Kulturgintza ...

1. gizarte-esparru tradizionaletan: euskaldunen bizimodua (iraupena);
2. gizarte-esparru modernoetan: euskaldunen hazkuntza (hezkuntza) ... tradizioaren ukoak eta alienazio-sentimenduak eraginda, kulturaren erabilera politiko eta identitario-diskurtsiboa sortzen da, gogo abertzalea eta euskal hiztunak sustatzeko ... hartara kultur-gintza, -gileak, -politikak;
3. gizarte-esparru berantiarretan: euskal kultura-osagaien hazkuntza (ekoizpena) ... kapitalismoaren logika kultural berriari jarraiki?

Formula magiko bat (pasaden edizioaren arrastoan, I)



Oinarrizko hiru premisa :

1. Identitateak plastikoak dira: momentu kritikoa aprobetxatu behar da, lidergo batek arrasto propioa utziz eta arrakasta emango diona;
2. Euskal politikagintzan gatazka bakarra nortasun-politikarena da eta horren kontzientzia badago;
3. Arazoa da kultura-logika aldatu dela, merkatua dabilela monopolizatzen unibertso sinbolikoa eta nor-banakoa (kulturgile zein kontsumitzaile) umezurtz bezala sentitzen dela, arazo sistemikoei aterabide indibidualak ematera behartuta egonik.

Bi defizit nagusi:

1. Euskaltasunak porrot ... burgesia nazionalaren faltagatik;
2. Abertzaletasunak gatazka arlo politikora estutu du (abertzaletasun biren hegemonia borroka), proiektu kulturala baztertuta (ez da termino *politikoetan* hori kapitalizatu).

Formula magiko bat

(pasaden edizioaren arrastoan, II)



Saiakera berri baten elementuak:

- a. Potentzialitatea ezker-euskaltzalean dago (“bertsolaritza” kasu);
- b. Euskaltzaletasun ez-abertzalea zalantzatsua da;
- c. Formula magikoa akordio zabala da: Ezker Abertzalea, EAJ eta PSE;
- d. Talkan egon litezke (a) adostasun estrategikoa eta (b) bere posibilitatea;
- e. Hegemonia gainditu eta adostasuna hobetsi behar da:
 - abertzaletasun instituzionalak baliabideak ipini eta egitura iraunkorrak bermatuz, eta
 - abertzaletasun soziokulturalak [sektore periferikoak] proiektuak aurrera eramanez.

Euskal kultura da estrategia berriaren oinarria:

1. bertakotasuna eta hizkuntza jaso behar ditu;
2. “neurotiko ona” ezin izan dugu izan eta “fanatiko txarra” ez da erakargarria;
3. alegia (iruditeriak, diskurtsoak) eta egia (errealak) tentsioan mantendu behar dira, euskara jolastagarri baten mesedetan.

(3) Modulu berrirako gaiak



1. Laburpena: hiztegi berria eta bere larritasunak;
2. Hirugarren modulua;
3. Galdera eta kezka lekutuak.

Laburpena: hiztegi berria eta bere larritasunak



1. Hiztegi berria: merkatua eta indibiduoak dira ardatzak, eta hortik *eratotzen* dira gogoeta-gaiak zein proposamenak (erakargarritasuna, hautaketa; negozioa, folklorea; adostasuna, hitzarmena, e.a.).
2. Sintoma bat: modu anbiguo batean ulertu eta nahasten da indibidualtasuna (bi bektore: emantzipazioa eta ziurgabetasuna).
3. Kultura-politikaren merkaturatzea:
 1. Kontsumoaren funtzio sinbolikoak logika propioa du eta zentzu-emaile bezala ardura monopolizatu du.
 2. Euskal diskurtso politikoetan kultura modu arrotz, komertzial eta heteronomoan erabiltzen da.
4. Euskaldunaren ziurgabetasuna:
 1. Dilemaren lekukotasuna: kontsumo-logikarekin eta eskubideen erreinuan, segurtasunen galtzea, zentzu-gosea eta identitatearen beharra nagusitzen ari dira.
 2. Autonomiaren kultura auzitan dago, merkatu-logikaren aurrean auto-mugaketaren kultura bat falta delako.

Hirugarren modulua

2009-04-01	Josu Amezaga <i>Kultura-aniztasuna eta euskal identitatea</i>	Amelia Barkin <i>Kultura-aniztasuna eta hezkuntzaren desafioak</i>
2009-04-22	Imanol Galfarsoro <i>Kultura: azterketa kontzeptual eta kritiko bat</i>	Itxaro Borda
2009-04-29	Xabier Aierdi <i>Euskararen limite sozialak: indibidualizazioa, merkaturia eta komunitate soziokulturala</i>	Amaia Zubiria
2009-05-06	Iñaki Martinez de Luna <i>Euskal nortasuna: kidesuna eta kontsumoa</i>	Bernardo Atxaga
2009-05-13	Mario Zubiaga <i>Euskal nortasuna: diskurtsoak eta</i>	Xabier Lete

Zenbait galdera eta kritika (I)



1. Zer dira euskal kultura-jarduerak, zer gertatuko da euskaldunekin edota kultura-eragileekin, nortzuk dira horiek?
2. Kulturgintza berantiarra posible ote da azpiegitura, irudikari eta esparru moderno beregainak izan gabe?
3. Merkatu-dinamika lehenesteak ez du zailduko euskal kulturgintzaren funtzio modernoa (gure nortasunaren elikagai sinbolikoa izatea eta horretarako arazoak sustatzea)?
4. Euskal kulturgintzaren estrategia bideratu asmoz, zer nolako rola dagokie administrazioei, gizarte zibilari eta merkatuari? Eta nolakoa behar du beren elkarrekintzak?
5. Nola ulertu behar dira politika, kultura eta bien arteko harremanak?

Zenbait galdera eta kritika (II)



6. Estatutuaren haurren pertzepzioak zerk eraginak dira, sasoi historiko berrian nola bizi dute euskal kulturgintza eta oro har identitate-zentzua? Autonomiaren kultura eta auto-mugaketaren kultura bat ote ditugu?
7. Zeintzuk dira (eta zergatik) euskaldunen kontsumo-ohiturak?
8. Zer da kultura-aniztasuna, nola biderkatu euskal nortasunarekiko atxikimendu-lerroak eta orobat gure etniaren gaurkotasuna?
9. Ze neurritan da bideragarria, erresistentzia-identitatea gaindituz, kontsumitzaileak erakarri asmotan, proiektu-identitate bat?
10. Diskurtso eta irudikari kolektiboak ba ote ditugu, premisa adostuak ba ote ditugu, zeintzuk dira diskurtso nagusien ardatzak eta horien inplikazioak?

Zenbait galdera eta kritika (III)



Kultura	Herri kultura, euskal kultura, masa kultura, Kulturgintzaren aroak: espazio beregainak
Logika berantiarra	Kulturgintza: merkatu-dinamika ala elikatzaile sinbolikoa? Eragileak eta beren hartu-emanak
Kulturgintza	Herritargoaren zentzu-guneak eta sinboloak Diskurtso politiko eta sozialak: tradizionala, komertziala, herrikoia?
Orainaldia	Herri-zikloa eta identitatea (erresistentzia ala proiektua?) Saso historikoa eta identitatea
Aniztasuna	XX, Errealitate plurala, kohesioa XX, Identitatea: fluxu berriak eta euskal kultura
Irudikari kolektiboak (euskaingintzan)	Kultura, identitatea eta politika: adostasuna ala hegemonia? Subjektuak: merkatua eta kontsumitzailea, ala erkidegoa eta herritarra?

Kulturgintza birpentsatzen

Hurbilketa bat aldaketa sozialei eta bere eraginei kulturgintzan



EUSKAL KULTURGINTZAREN TRANSMISIOA
HIRUGARREN MODULUARI SARRERA
2009-03-25